

UME BEREZI EUSKALDUNEN HEZIKETA-ARAZOAK

Hemen, heziketaren alorretako arazoak, batez ere nolabait euskerarekin erlazionaturik direnak aztertzerakoan, behin baino sarriago etorri izan zait *ume berezi euskaldunen* egoeraz zerbait esateko gogoia. Susmatu ere, hauek, heziketa euskaraz jasotzeko eragozpenak izan zituztela susmatzen bait nuen.

Hori zela eta, Bilboko Magisterio Eskolan karrera euskaraz egiten ari den eta, beraz, hurbiletik ezagutzen dudan ume berezi euskaldun baten ama batekin hitz egin eta, besterik ezin badut ere, arazo hau hemen aurkeztu eta kalera-tzeko erabakia hartu nuen.

Irakurria nuen, bestalde, gure auzoan banandua izan zelako edo, direla urte batzu ama horrek Euskal Herriko ume berezi euskaldunen alde, SOS larria jaurtikiz, eginiko idazki bero eta sentikor bat.

Beraz, giza arazo hau hain gorria eta latza izanik, egoki iruditu zait denon ezaguerarako idazki hori hemen berrargi-taratzea eta arazo honetaz ama horri galdera batzu egitea.

Honela zioen ama horrek bere idazki horretan:

* * *

«Atzeratu batek berez ditu mila oztopo eta eragozpen gizartean parte bizia hartzera iritxi gura badu. Bere ahalmen laburrak laguntza, lan eta neke gehiago behar du besteen mailara urreratzeko. Baina atzeratu batek, berez, hainbeste oztopo baditu, euskaldun atzeratu batek, hoiien gainetik, beste oztopo negargarri bat du: HIZKUNTZA.

Nire arazoa ume BEREZI EUSKALDUNA da.

Bera inguratzen duen giroan, gizarte aldetik, euskalduna izan edo ez arduragabetasuna nabaritu dudalarik, ez nuke nahi iragarki hau egun batetarako laguntza eskatzeko edo emateko erabat izan dedin. Ume hauek, beste edozein herritarrek bezala, Euskal Heriaren etorkizuna izateko eskubidea dutela pentsatzen duen euskal sendirik, bai gizarte zatirik, ba dela sinetsi nahi nuke.

Ni ume berezi bat duen ama euskaldun bat naiz. Asier du izena eta zazpi urte ditu. Hiru urtekin haurtzaindegi euskaldun batetara eraman nuen. Bost urte bete arte normal eta euskaldunen artean egon zen. Gero toki berezi bat behar zuen. Ikastolek ez zuten holakorik eta eskola berezi baina erdaldun batetara sartu behar izan nuen. Ikasketa, lagun eta andereinoak erdaldunak ziran. Erdaldun izatera kondenaturik bazegoen bezala, ez nuen autakizunik izan. Haurtzaindegiko andereinoetatik kanpo, ez nuen inorengan ardurarik eta kontzientzi kezkarik nabaritu.

Txikia zenean, erdaraz egiteko aholkua eman zidaten. Psikologo batzuegan oinarritzen ziran esanez: «Hizkuntza bi ezin dituzte ikasi, eta, bat izatean, erdarak izan behar du, euskaraz ez da heuren hezkuntzataz ezer eta». Beraz, euskaraz egitea, umeari zailtasunak jartzea zen, eta amaren, sendiaren, giroaren sentipenei uko egin behar zitzaien umearen onari begira jokatz.

Euskal Herrian, euskal sendi eta giro batetan jaio ta bizi behar zuen ume bati, erdaldun izatera kondenatua zela aditzera eman behar nion, eta hau ez zen nere buruan sartzen.

Hainbat mediku eta ume hauekin arduratuak ziren beste zenbaitekin hitz egin nuen. Batzuk euskara egitera animatu ninduen, besteek barriz, nere joera kondenatu egin zuten.

Egoeraren aurka nintzen, erdara eginez ez zela arazoa uxatzen pentsatu nuen. Eskolarako zuen oztopoa kenduko nion, baina etxean, inguruan, baztertuta izango zen, amaren hizkuntza euskara zelako eta inguruan, etxean giro euskalduna zuelako.

Norbaitek pentsa dezake ume bereziak ez duela euskalduna-izateak duen garrantzia sentituko. Gehienen ustez, ume berezientzat, zaila da hizkuntza bi ikastea eta girorik zabalena duena ikasi behar lukete. Gaur egun, tamalez, erdara da girorik zabalena duena eta erdaldunak izatera kondenatzen dituzte pausatuki.

Nere ustez, ume berezi euskalduna, arazoa uxatzeko aitakiz ematen zaion hizkuntza eta giro arratz horretan, beste edozein jatorrizko bezala, baztertua eta zapaldua sentitzen da. Bere sendiarekin berdin gertatzen da.

Arazo hau kontzientzi arazoa da, Euskal Herriak gaur dituen beste arazo asko bezala, eta beharturik aurkitu behar ginake, ez erdara egitera, euskalduna izateko duen eskubidea berriz eskuratzeko ahalegina egitera baizik.

Euskaldun sendi batetako ume bereziari erdara egiteak sendi horretako giro osoa aldatzen du ta erdalduntze bidean jarri. Frankismoak etzuen euskaldun sendiak erdalduntzeko bide hoberik aurkituko.

Asier euskalduna izango zela erabakia hartu ondoren, hainbat oztopo gainditu beharra izan dut eta gainditzeko ere asko ditut oraindik. Umeak, eskola giroa etxe giroaren aurkako duenez, zailtasun haundia du, batez ere hizkuntzan. Oporretan, etxe-giroan, hizkuntzan aurreratu egiten da; baina eskolara itzultzean berriz atzeratu. Ikastaro denetan berdin gertatzen zaio.

Hizkuntzaren berreziera behar du. Euskaraz izatea nahi dudanez, nork eman bilatzea zaila izan dut. Ezetzik eman ez didaten arren erantzunik ez dut jaso. Azkenik ahaide bat (psikologia egina du) laguntzeko prestatu zait, neuk ere jarraipen modura umeari lagunduz. Umea, bere giroan laguntza eman zaionean aurreratzen hasi da, hizkuntzan batez ere. Pen-

tsa dezagun, eskola etxe-giroaren gehigarri izan balitz, baringo nolako aberastasuna izango zuen.

Nere postura hau zen eta da:

Zergaitik ez da ezer ume berezi euskaldunaren hizkuntzatzat? Ez al dira Euskal Herriaren zatiak?

Ez al dute Euskal Herria era guztietako pertsonak, normalak, bereziak etab. osotzen?

Ez al dute, beste edozein herritarrek bezala, euskaldunak izateko ta ikastola batetara joateko eskubiderik?

Ume hauci erdaraz egitea ez al da sendi euskaldun bat erdalduntze bidean jartzea? Ez al duzue pentsatzen, ume hauen bitartez, euskaldun sendiak baztertzea litzatekela etsaien jokoa?

Arazo honi erantzuna nork eman behar dio? Ikastolak?

Nere ustez bai. Gaur egunean arazo asko ditu, baina erantzuna berak eman behar dio. Ume hauek toki bat behar dute ikastoletan edo ta eskola berezietan. Gaurkoz denetan ezina litzateke. Bizkai mailan edo bailara mailan, ikastola batetan edo eskola berezi batetan, toki bat egitea ez da ezin dan gauza.

Lehen psikologo batzuen esanetan oinarritzen ziran erdara egiteko aholkua ematean, gaur ba dira psikologoak, euskaldun sendi batetako ume bereziari erdaraz egitea ume berarentzat kaltegarri dela diotenak.

Ume normal euskaldunaren eskubideak berrizkuratzeko hainbat lan eta ardura den ume honetan, ume berezi euskaldunak ere gure herriaren zati haundi bat ditugunez, premiazkoa eta ezinbestekoa dugu euskaldun sendiaren eskubide hau berrizkuratzeko eta ume hauen egoera estudiatzeko ahalegina egitea.

Honela, Herriak epaituko duen lan garrantzitsu betetzeaz gainera, ume berezi euskaldunak, sendi euskaldunak eta Euskal Herriak berak onura aterako du.

Euskal Herria era guztietako pertsonak osotzen dugunez,

denek dute, nere ustez, euskaldun izateko eta sentitzeko eskubidea. Eskubide hau *Asierreri* ez diot zapaldu nahi izan ezta zapalduko ere. Arazo hau ahalaginik egin gabe ezin dela utzi pentsatzen dut.

Euskal Herri osoak du zer ikusia arazo honetaz, gizarte euskaldun osoak, ikastola, eskola bereziak...

Gaitza agirian dago eta ezin izango dute eskurik garbitu, batez ere, *Euskal Kontseilu Nagusiak, Euskaltzaindiak, Diputazioak, Udaletxeak,...*, euskaldun herriaren gidari badira

Ez dut uste ezina denik, kontzientzi arazoa baizik.»

Libe Enbeita

Nik: Libe, joan zen egunean Mikel Abiega irakaslea (Zornotzan ume bereziekin lanean ari zaigu Santutxuko seme hau) luze mintzatu zitzaigun Bizkaiko Herri Irratian ume berezien beharrienak azpimarratuz eta berak ume horiekin lan egiterakoan aurkitutako arazoei buruz.

Besteak beste, ondoko hauek aipatzen zituen: a) Ume horiekin lanean ari diren irakasleen prestaketa bereziaren falta. b) Ikastetxeetako arduradunen eta gizarteko zenbait arduradunen kontzientzia eta ardura eza. c) Lan hori burutzeko nahitaezko den psikologo-pedagogo-mediku-irakasle talde baten premia larria. d) Ume horiek beste umeen artean, atsedenaldietan, jantokietan, jokotan eta abar integratu beharra. e) Ume berezi euskaldunei heziketa euskaraz eman beharra eta beste halako zenbait puntu defendatuz.

Azken batez, Mikelek ume berezi horiei kupidatasun faltu bat eskeini beharrean beste umei ematen diegun tratu berbera eman behar diegula azpimarratzen zuen, hori dela benetan eguneroko bizitzan eta giroan integrazeko bide bakarra defendatuz.

Beraz, bere ustez, ikastetxean eta, ume horiei beren kabuz baliatzen eta beste edozein ume bezala konportatzen (komunera joaterakoan, jolasak egiterakoan, elkarren ar-

teko harremanetan, zigorra merezi duenean zigortuz eta abar...) irakatsi behar zaie.

Arazo hau zuk dagizunez oso gorria dugu gaurko gizarte honetan eta inork jasan eta hurbiletik bizi behar baldin baditu bere ondorioak, zuok gurasook egin behar izaten duzue.

Zer deritzozu zuk, Mikelek dioskunari? Zuk ere tratu normal hori dela ume berezi horiek gizarteratzeko bide-rik egokiena uste duzu?

Libek: Bai, integratzea osotasunaren zati izatea denez, gizartera integratzea, gizarte eta gaitasun gabeko pertsonen arteko ekintza planteamendu bat bezala ikusi behar da, ume bereziak herri eta adin bereko edozein herritarrek bezala dituen eskubide eta bete-behar funtsezkoak dituela kontutan hartuz.

Nik: Zure idazkian SOS larria jaurti zenuen direla urte batzu. Zure dei horrek izan du inongo erantzunik?

Libek: Ez; gaur arteko gure heziketan mundu bi izan ditugu: *Bereziena* eta *Normala*, lehenengoak arraroak eta gaiezak bezala baztertuak izan direlarik. Oso zail egiten zaigu ezberdintasun hau gainditzea; beraz, ume berezia duten gurasoek beharizan asko dute. Bat eta oinarrizkoa, laguntzaren beharra da, lotsa, erruduntasun, zapuzte eta ezintasunari traumarik gabe aurrez aurre egin diezaieten. Guraso euskaldunek horien gainetik euskaldun izateko eta sentitzeko beharizana eta eskubidea dute, baina Mikel Abiega bezalako aurrelari baten bultzada behar dute.

Nik: Zure idazkian, ikastolek ez diotela oraingoz erantzun egokirik ematen ume berezi euskaldun horiei ere ba diotzu. Nola jokatu beharko lukete, bada, zure ustez?

Libek: Lehen esan nuen bezala toki bat eskatzen diet ume hauentzat, ez ikastola guztietan Bizkai-mailan edo bailara-mailan baizik, arazo asko ditu gaur egun baina erantzuna, azken batetan, berak eman behar dio.

Nik: Idazki horretan, bestalde, inguruko gizarte barruko kontzientzia-eza salatzen zenuen. Egin duzue ezer, ume horien gurasook, arazo hau kaleratzeko?

Libek: Hainbat sendagile, ahal izan nuen guraso eta ume hauekin arduratuak ziren zenbaitekin mintzatu nintzen; batzuk nire jokaera onartu eta animatu egin ninduten, besteek, oster, kondenatu egin ninduten. Arazoa kaleratzeko ez da ezer egin, ordea.

Nik: Lehengo egun batetan, Gasteizen izandako bilera batetan parte hartu zenuela esan zenidan. Baina erdaraz hitz egin beharra izan eta arduraren arduraz zeure barruko ikuspuntuak adierazi ezinda edo aurkitu zinen, nonbait. Zer esango zenuke orain lasaiago izanik?

Libek: Ume berezi batek hainbeste oztopo baditu, euskaldun ume bereziak, horien gaineratik beste oztopo negargarri bat dauka: *Hizkuntza*. CAPIE-k ume bereziaren heziketan gurasoei holako garrantzia ematen die:

«Berezko hezlariak gurasoak badira, berezko tokia etxea eta berezko lanabesak, jolasak, ume bereziaren heziketa edo berreziera nahi duen edozein egitarautan gurasoak sartzearen beharrezkoak da. Heziketa jaiotzean hasten da, edo lehenago oraindik: Beraz, heziketa bide honen bihotza gurasoak dira. Beraiek gabe nekez da ezer lortuko. Heziketa era guztien gakoa gurasoek eratzen dutela esan dezakegu».

M. TOWLE-k ere ez dauka dudarik beren semeen terapeutarik onenak gurasoak direla baieztatzean.

Lenguaiaren lorpen-etapan, dudarik gabe, amaren hizkuntz-ingurua garrantzitsua da umearentzat eta bere ikasgoa, bide-ardatza; eta hau berdin, berezi nahiz normalarentzat.

Nik: Zu orain Magistergo karrera egiten ari zara. Ume berezi euskalduna izateak izan du erabaki hori hartzerakoan zerikusirik?

Libek: Bai. Arazo berdineko guraso eta elkarteekin harremanetan jarri nintzanean, umeari erdaraz egiteko aholkua eman zidaten zeren ez bait zegoen ezer euskaraz beren heziketaz eta euskara egitea umeari oztopoak jartzeari zuzentzen. Nik umeari lehen txokea errazago egin zekion

eta eskubide guztia zuelako, eskola berezi erdaldun batetara derrigorrez joan behar bazuen ere, umearengana zuzentzean euskaraz mintzatuko zitzaion andereiño bat eskatu nuen. Mirari bat bezala, atzeratuen elkartea bide andereiño euskaldun bat zegoen eskola berezi batetan sartu nuen; (gaur ere umeak gogoan izaten du bere lehen andereiñoa) umea poliki-poliki egoera barrira ohitu zen; geroko urteetan andereiño ugari aldatu du eta denak erdaldunak; egoera honek bultzatu ninduen euskara lantera eta gero Magisterion sartzera.

Nik: Azkenik zer eskatuko zenieke Agintariei gure aldizkari honetatik berriz jaurtzen duzun SOS honen bidez?

Libek: Lehen esan nuen bezala, ume normal euskaldunaren eskubideak berreskuratzeko hainbat lan eta ardura den gizarte honetan, ume berezi euskaldunak ere herriaren zati ditugunez, premiazkoa eta ezinbestekoa dutela, euskal familiaren eskubide hau berreskuratzeko eta ume hauen egoera estudiatzeko ahaleginak egitea.

Nik: Ume berezi euskaldunak dituzuen sendien artean ba duzue harremanik? Ume berezien elkarreak eman dizu inolazko laguntzarik? Nolako irtenbidea bilatu diozue guraso euskaldunok arazo honi?

Libek: Ez dut inorengandik laguntzarik ez ardurarik izan (Hiru urte zituela Karmeloko haurtzaindegian hartu zidaten, hemen dena zen euskaraz) haurtzaindegi honetan zeuden andereiñoengandik aparte.

Zornotzako ama batekin ere harremanak izan nituen; honek neskato bizkor eta euskalduna zuen baina eskola berezi erdaldun batetan sartu beharra izan zuen.

Arazoak ez du oraindik inolako irtenbiderik, ez baita agertu aurrez-aurre egin nahi duen gurasorik, Zornotzako ezik.

Nik: Ba duzu besterik esateko?

Libek: Euskaldun gizarte osoak, ikastolek, eskola bereziek, dute arazo honetaz zerikusia. Euskal Herria era guztietako pertsonak osotzen dugunez, denok dugu euskaldun

izateko eta sentitzeko eskubidea; eskubide hau ez diot zapaldu nahi izan Asierreri, ez eta zapalduko ere; arazo hau, lehen esan nuen bezala, ahaleginik egin gabe ezin dela utzi pentsatzen bait dut.

* * *

Argi ikusten dugunez larri dute egoera ume berezi euskaldunen bat duten gurasoek. Ume berezi bat izateak sendi bizitzara dakartzan arazoak gainera, ikastetxe erdaldunetan heziketa hartu beharrak berezko arazo horiek hainbatetan bizitu eta larritu egiten ditu.

Aldizkari honetan, Libek egiten digun deiak, har beza erantzun zabala euskaldunongan eta bila ditzagula irtenbi-deak, ume horiek ere Euskal Herrian euskaldun izateko duten eskubidea zain dezagun.

P. U.

[Faint mirrored text, likely bleed-through from the reverse side of the page]

[Faint mirrored text, likely bleed-through from the reverse side of the page]